BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/09/15

# San Antonioko barrutia Busturiaren esku izteko Aldundiak egin dauen proposamenak beste tramite bat igaro dau Batzar Nagusietan

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak argi berdea emon deutso Aldundiak aurkeztu dauen proposamenari. Bertan San Antonioko barrutia kendu eta eremu hori Busturiaren esku izten dau, 2016ko zemendiaren 23ko Euskadiko Justizia Epaitegi Gorenaren (EJEG-TSJPV) autoa beteteko. Aldeko 3 botogaz (Talde Mistoa eta Podemos) eta 13 abstentzinogaz (EAJ-PNV, PSE, PP eta EH BILDU) erespena osoko bilkurak berretsi beharko dau.

Hartutako konponbideak, osoko bilkuran onesten bada, ondorioak izango ditu Sukarrietako udalerrian, San Antonioko lurrak galduko ditualako Busturiaren alde. Aplikazino igarokor moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak konpentsazinoko neurri ekonomikoak gehitu ditu Batzar Nagusietan aurkeztu dauen proposamenean.

Foru Aldundiak egin dauen proposamenean, barruti horretan dagozan establezimenduen Jarduera Ekonomikoen Zergatik, udan salmenta postuak edo kioskoak instaletako emakidetatik eta biztanleriaren galeran, azaleraren galeran eta San Antonioko Hondartzara joatean eragina daben Udalkutxaren banaketarako erespideetatik sortutako hurrengo bost urteetako diru-sarrerak Sukarrietako Udalari ordaintzea proponiduten da.

GIZARTE EKINTZAKO LANTALDEA INDARTZEA 2018RAKO

Batzorde berean, eta EH Bilduk egin dauen galderari erantzunez, Ibone Bengoetxea Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak adierazo dau Aldundiak gauzatu dauela daborduko Funtzionarioen 2016ko Akordioak Gizarte Ekintzako arloan lanpostuak sortzeko jasoten dauen azterlana.

"Laneko kargek gora egin dabela" adierazoten dauen azterketa horretan oinarrituta, berak zuzentzen dauen sailak 2018an sail horretako lantaldea handitu egin beharko dala adierazo dau diputatu andreak. 2017an Aldundiak "10 pertsona" kontratau ebazan aldi baterako, sail horren beharrak beteteko.

Bengoetxeak adierazo dauenez, datorren urtean eskiniko dan plaza kopurua sindikatuakaz adostu beharko da. Kontratazino beharrak "psikologia, medikuntza eta gizarte lan" kategoriatan dagoz, azpimarratu dau.

AZPIEGITURA ARLOKO EKINTZAK

Saio berean, Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak agerraldia egin dau, Talde Mistoak eskatuta, talde horren eretxiz Bizkaiak hurrengo urteetan egin behar dituan "errepideetako obra eta azpiegitura handiak" zehazteko.

Foru Ogasunak abuztura arte diru bilketan izan dauen "%14,9ko" hazkundea ikusita, Aldundiko agintari nagusiak azpiegituren arloan "erabagiak hartzeko unea dala" onartu dau. Gauzatu beharreko proiektuen artean, Foru Gobernuak hiru ekintza daukaz esku artean: Ibaizabal itsasadarraren aldeen arteko loturea hobetzea –"Arrontegiko zubiaren anaia"–, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren bigarren fasea eta aireporturantz eta Galdakaorantz joango dan trenbideari bultzadea emotea.

Dana dala, Rementeriak adierazo dauenez, arlo horretan bi klabe kontuan izanda jardungo da: "ordaindu daikeguzan azpiegiturei ekitea" eta azpiegitura horreek "herritarren bizitza kalidadea hobetzeko baliagarriak izatea".

Ahaldun Nagusiak azpimarratu dauenez, erabagiak hartu aurretik, bere gobernuarentzat "oso garrantzitsua" da Batzar nagusietan Errepideen Lurralde Sektore Plan barriaren inguruan aurrera eroaten ari dan txostenetik sortuko diran ondorioak ezagutzea. "Oraindino ez dago ezer erabagita", azpimarratu dau.

DEIADAR MENDIAK

Bukatzeko, batzordeak ez dau onartu Talde mistoaren arauz besteko proposamena, Aldundiari eskaria egiteko, Deiadar mendien goikaldean edo inguruko lekuren batean, Batzar Nagusietarako deiak "deiadarren eta suen" bitartez gogoratu arazoteko "leku egokiren bat" atontzeko. Bizkaiko Batzarretako gainerako taldeek ezezko eretxia azaldu dabe, euren eretxiz Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatzen daben ekitaldia "ondo planteauta" dagolako. Gogorarazo dabenez, sua bizteak "legeagaz eta ingurumenagaz" erlazionautako arazoak sortu daikez.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
15/09/2017

# La propuesta de la Diputación para otorgar el enclave de San Antonio a Busturia pasa un nuevo trámite en las Juntas Generales

La comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado luz verde a la propuesta presentada por la Diputación en la que elimina el enclave de San Antonio y otorga éste a Busturia, recogiendo así un auto del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV) del pasado 23 de noviembre de 2016. El dictamen, aprobado por 3 votos a favor (Mixto y Podemos) y 13 abstenciones (PNV, PSE, PP y EH Bildu), deberá ser ratificado ahora por el pleno.

La solución adoptada, si es aprobada en sesión plenaria, tendrá consecuencias para el municipio de Sukarrieta, ya que perderá los terrenos de San Antonio en beneficio de Busturia. Como aplicación transitoria, la Diputación Foral de Bizkaia ha añadido en su propuesta a Juntas Generales medidas de compensación económicas.

La institución foral propone que se abone al Ayuntamiento de Sukarrieta los ingresos correspondientes a los cinco años siguientes derivados del Impuesto de Actividades Económicas de los establecimientos ubicados en el enclave, de las concesiones para la instalación de puestos de venta o kioskos en época veraniega y de los criterios de reparto de Udalkutxa que afectan a la pérdida de población, pérdida de superficie y asistencia a la Playa de San Antonio.

## REFUERZO DE LA PLANTILLA DE ACCIÓN SOCIAL PARA 2018

En la misma comisión, y a pregunta de EH Bildu, la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha confirmado que la Diputación ha materializado ya el estudio que se recoge en el Acuerdo Funcionarial de 2016 para la creación de puestos de trabajo en el área de Acción Social.

En base a este análisis, del que se deriva que "se han incrementado las cargas de trabajo", el departamento que dirige Bengoetxea ha sostenido que en 2018 se podrá incrementar la plantilla de dicha área. Ya en 2017, la Diputación contrató de forma temporal a "10 personas" para cubrir las necesidades de este departamento.

Bengoetxea ha subrayado que el número de plazas ofertadas el año próximo deberá acordarse con los sindicatos. Las necesidades de contratación se encuentran en las categorías de "psicología, medicina y trabajo social", ha apuntado.

## ACCIONES EN MATERIA DE INFRAESTRUCTURAS

En la sesión, el diputado general, Una Rementería, ha comparecido a petición del grupo Mixto que le pedía que detallase “las grandes obras e infraestructuras viarias estratégicas” que en su opinión debía afrontar Bizkaia en los próximos años.

A tenor del incremento del “14,9%” de la recaudación obtenido hasta el mes de agosto por la Hacienda foral, el máximo mandatario de la Diputación ha admitido que “es el momento de tomar decisiones” en materia de infraestructuras. Entre los proyectos a llevar a cabo, el Gobierno foral maneja tres acciones: la mejora de la conectividad entre las márgenes del Nervión –“el hermano del puente Rontegi”-, la segunda fase de la Variante Sur Metropolitana y el impulso del ferrocarril hasta el aeropuerto y Galdakao.

En cualquier caso, Rementeria ha advertido que se actuará en esta materia teniendo en cuenta dos claves: “afrontar infraestructuras que podamos pagar” y que éstas “sirvan para mejorar la calidad de vida de la ciudadanía”.

El diputado general ha subrayado que, antes de tomar decisiones, para su gobierno es “muy importante” conocer las conclusiones que se deriven de la ponencia que se desarrolla en las Juntas Generales sobre el nuevo Plan Territorial Sectorial de Carreteras. “Aún no hay nada decidido”, ha apostillado.

## MONTES BOCINEROS

Por último, la comisión ha rechazado una proposición no de norma del grupo Mixto para instar a la Diputación a estudiar la posibilidad de disponer en las cimas de los montes bocineros o en su entorno inmediato “de un lugar apropiado” para rememorar la convocatoria de las Juntas mediante “bocinas y hogueras”. La iniciativa se ha topado con el no del resto de grupos de la Cámara vizcaína que creen que el acto organizado por las Juntas Generales de Bizkaia está "bien planteado". Recuerdan que el encendido de fuego puede acarrear problemas “legales y medioambientales”.